

BATZAR AGIRIAK

1975-I-31

Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1975eko urtarrilaren 31an, goizeko 11 ta laurdenetan, bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Erkiaga, Irigaray, Irigoyen, Lafitte eta Satrustegi euskaltzain jaunak; Akesolo, Alzola Gerediaga, Aresti, Berriatua, Berrojalbiz, Gereño, Kerexeta, Kintana, Lizundia, Oleaga, Onaindia, Uribarren eta Zaitegi laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Diharce, Larre, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abenduko agiria onhartzen da.

a) *Har-emanak*:

Idazkariak, 1974. urtean batzarretara etorri diren euskaltzain eta laguntzaileen berri eman du, zerrenda osoa irakurriaz. Euskaltzain osoetatik batzaretarra agertuak, guztiz 13 izan dira, eta beste 11 beren ezin etorria adiarazi dutenak. Euskaltzain ohorezkoetarik 1 agertu da, eta 2 ezin etorria adiarazi dutenak. Batzarretara agertu diren euskaltzain laguntzaileak, 41. Ondorean, batzar bakoitzera zenbat zehatz agertu du.

Idazkariak, Elhuyar taldekoekin eta Udako Euskal Unibertsitatearen antolatzaileekin Donostian eta Eibarren izan dituen batzarren berri ematen du. Hauen asmoa da lantegietako har-emanak euskaraz egitea, bai lantegi barnean eta bai lantegiak beren artean. Ekintza hau gutitik hasi nahi da, saiaera gisa, eta Eibarren bildu zirenen arteko 14 lantegiburu ere baziran esperientzia hau aurrera eraman nahirik. Hoietako batzuk lehendik hasiak ziren, batzuk aminstrazio mailan eta beste batzuk teknika mailan, eta elkarren esperientzien berri eman zen eta zenbait pundutan Euskaltzaindiaren kontseilua nahi dute. Lanetariko bat, hasteko, rotulogintza izango da, euskara hutsean edo letra txikiagoetan erdaraz ere jarriaz. Tolosako kalderagintza lantegi baten eskariz Elhuyar-koek gertatu duten zerrenda irakurri da eta era honetara onhartu da: GORDAILUA (Almacén), BULEGOAK

(Oficinas), ZUZENDARITZA (Dirección), BULEGO TEKNIKO (Oficina técnica), LANTEGIA (Taller), KOMUNAK (Servicios), PINTURGELA (Sala de pintura), SOLDAKETA (Soldadura), SOLDAGELA (Sala de soldadura), ERREMINTAK (Herramientas), FABRIKAPENA (Fabricación), eta KONTADURIA (Contabilidad).

Euskaltzaindiaren ordezkariak Mondragoeko Lankide Aurrezkiaren bertako zuzendariekin eta Siadeco-ko Agirre eta Larrañaga jaunekin izan duten batzarraren berri eman da, gizarte-lingustika ikerketari buruz. Iker lan hau, oraingoz, Hego Euskal Herrian egingo litzake eta hiru parte eramango ditu: Hizkuntzak gizarte har-emanetarako duen balioa eta beriziki euskarak gure herriarentzat duena zertan datzan; bigarrenean, egungo egoeraren ikerketa, estadistika eta herriaren gogoaz aztertuz; eta hirugarrenez, aurreko bi parteen arrazoinez, egoera hobetzeko eta euskara etorkizunean indartzeko hartu beharrezko bideak markatu eta hizkuntzaren salbaberako ekintzaren planifikazioa egin. Lanbidea, lehen eta hirugarren partean zehatzago aurkeztekotan gelditu gara.

Sariketen berri ematea: Basauri V. sariak, aurtan, Artea izango du gaitzat.

1975eko "Tx. Agirre" eleberri saria, 50.000 pezetakoa izango da. Neurria, 100 orrialde. Gainerakoan, arautegia lehengoa bera. Lanak entregatzeko epea, uztailaren 26a.

Lizundia jaunak aditzera ematen du Donostian Facultad de Derecho delakoan izan duten bileraz. Euskarazko lege hiztegi bat hornitu nahi dute eta lege eta lege inguruko hitzen fitxak bidaliko dizkigute guk euskaraz jartzeko.

A. Tovar euskaltzain ohorezkoaren gutun bat irakurri da, *Onoma*-rako pertsona izenen eta leku izenen bibliografia laguntza eske. Probintzizko lan elkartu bat pentsatu da eta hauek izendatzen dire, arduradun bezala; Arabatik M. Ruiz Urrestarazu, Bizkaitik A. Irigoyen eta N. Altzola, Gipuzkoatik J. San Martin, Nafarroatik J. M. Satrustegi eta mugazandik J. Haritschelhar.

Hartu Diren liburua:

A. Irigoyen jaun liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du; Oinatik Herri Bibliotekatik, G. Elorza, J. Otalora

eta F. M. Ugarte jaunak bialdua, hango Arrazola-etxean aurkitzen diren esku-izkribuzko liburu zaharren xerokopiak, *Erretore jaun baten instrucinoac* eta *Osaba baten instrucinoac* izenekoak; Juan Jose Garmendia Arzelus jaunak, Kardaberaz taldearen izenean, berek argitaratutako liburu hauek, R. Muruaren *Aitonaren ipuiak*, L. Egiaren *Neurritzia*, *Kardaberaz* - Aita Kardaberaz'i Omen-Aldia, *Kardaberaz Bilduma* - 1 -Kardaberaz Aitari Omenaldia, Uxolak itzulia Mauriac-en *Sugegorri korapilloa*, E. Urruzolaren *Ezpalak*, Albisu ta Ayerdi-tar Anastasioren *Errekazuloan eta...* Larra-koetxeak itzulia Shakespeareren *Komediak*- A, A. Arrindaren *Euskalerra zaarrekoi Jainko Txikiak*, *Ume txikienezako soinketa*, Irizarrek itzulia H. Hubbard-en *Garcinari mezu bat*, "Kardaberaz"-2 (1973) eta "Kardaberaz"-3 (1974); P. Lafitte jaunak emanak, J. B. Etcheberry-ren *Orotarik* eta "Gure Almanaka" - 1975; Aita Onaindiak *Idazlanak Osorik*, *Enearena*, *Unai eta Alor kantak*, eta *Euskal Literatura* (II); Gero argitaldaria L. M. Muxikaren *Aintzínako sozio-ekonomia* (1); Jakin argitaldaria X. Lete, A. Zelaieta eta A. Lertxundiren *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*; Jan Braun jaunaren *Poloniatik bidalia La langue georgienne* (Chota Dzidzigouri); Gasteizko Aurrezki Kutxak J. Olabarria Sautu jaunaren *El Valle de Zuya*; Gipuzkoako Aurrezki Kutxak J. M. Beristain jaunaren *Azkoitia, cuna de Pelotaris*; Ondarroako Herri Ikastolak "Zubi Zahar" aldizkariaren lehen eta bigarren aleak; eta Donostiako Aurrezki Kutxak, I. Linazasorearen *La Navidad en Guipúzcoa*, M. A. Arrazolaren *Parroquia de San Vicente de San Sebastián*, *Fuenterrabia* eta *Oñate*, eta P. de Cuadra Echaideren *Parroquia de San Ignacio de Loyola*. Guziak eskertzea erabaki da.

1974. Urteko diru kontuak:

Eusebio Erkiaga jaun diruzainak 1974. urteko diru kontuaren berri eman du: Bilbon eta Donostian, guztira, zegoena 113.511,40 pezeta; gehitua 1.439.669,68; urritua 1.334.865,05; *dagoena 119.346,03 pezeta*. Diru-etxeetan zelan bananduta dagoen eta sarreren eta urrituen zertzeladarrak aipagarrienak irakurri ditu.

Azken orduan jakin danez, Donostiako Udaletxeak, 1974. urteko diru emaitzaz, 150.000,- pezeta erabagitzat hartu duela.

b) *Datorren urtebikoari begira, Euskaltzainburuaren txostena:*

Aditz batua, zukako laguntzailean egin den bezala, orain sintetikoan egitea komeni dela adiarazten du. Herri ta herritarren izenena zertan datzan. 8 urte arteko hiztegia, Donostiako ordezkariari esker, laster bukatzekotan dala. Lan hau bukatzean, orain artekoa gogoan harturik, goragoko mailako hiztegiaren premia dagoela, aditzera ematen du. Etxegintza hiztegia, J. M. Zumalaberen lan zehatzaren berri ematen du. Eta, Euskaltzainditik kanpora egiten diren lanak, gure ahalmenak hain neurtuak izanik, asmoz behinik-pehin ontzat hartu behar ditugula; gainera, ahal dugun neurrian laguntza emanez. Liburuak geroago ta gehiago hartzen ditugunez, liburutegiaren antolamena eskatzen du. 1974. urtea burutzean, irakasletarako esaminetan onharturik, 284 tituludun dirala. Mitxelenak duen proposamenduari jarraituz, Nevada-ko Unibertsitatean ekingo diola aspaldiko Hiztegi handiari, eta hara joan aurretik Euskaltzaindiarekin zurituko dituela elkarren arteko gauzak. Beste aspaldiko asmoetako soziolinguistikazko ikerketa, lehenago Gaur elkartearekin hasia baina diru laguntzaren faltaz utzia, orain beste alderdi batek lortu dela laguntza hori, eta Gaur-koekin bukatu eta Lankide Aurrezkiaren diru laguntzaz Siadeco elkarte aurrera eramatekotan dela. René Lafón euskaltzain zenari omenezko liburu bat eskaintzea gomendatzen du. Azkenik, hileroko batzarretan irakurtzen diren txosteneri ematen dio garrantzia, eta guziori dei egin bakoitzak berak ahal duen gaiez txostenak eginaz laguntzeko, haueri esker gure batzarrak garrantzitsuagoak ditugulako.

d) *Herri eta herritarren izenen lehen zerrenda:*

Zerrenda hoiek batzarkideen artean zabaldu dira. Lehen zati hau urrengo batzarrean onhartzeko, bakoitzak derizkion oharrek aztertu ondorean. Hasteko probintzia bakoitzetik eskualde bat hartu da: Arabako Gorbeialdea: Zuia, Zigoitia, Urkabustaiz, Legutiano - Billerle, eta Aramaio; Bizkaitik Durangaldea: Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Atxondo Harana, Zaldibar, Zornotza; Gipuzkoatik Deba-Leintz: Deba Arroa, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate - Mondragoe eta Oinati; Nafarroako Sakana: Sakana, Arakil, (H)

Ergoen, Irinta - Iraineta?, Uharte-Arakil, Arbazu - Arruazu?, Arbizu, Etxarri-Aranatz, Burunda, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olazti eta Ziordia; eta Erro-Aiezkoa: Aiezkoa, Abaurregaina, Abaurrepeko, Aria, Arike, Garaioa, Garralda, Orbaizeta - Orbaizta, Orbara, Aiezkoa - Iriberri, Auritze - Auritz, Erroibar, Luzaide eta Orreaga. Beren hauzo eta hauzotarrenekin.

e) A. Alustiza jaunaren txostena, *ATARRABI APEZA ETA PEDRO DE ATARRABIA* izenekoa urrengorako uzten da, batzarra luze doalako.

f) *OINATIKO TOPONIMIA EDO LEKU-IZENAK*, Felix M.^a Ugarte jaunak gertatua, J. L. Lizundia jaunak irakurria:

Oinatiko artxiboetan aurkitutako leku-izenen zerrenda, aurkitzen diren urteak jarriaz eta urtez-urte zelan aldatu diran agiriak. Zehatz eta bikain egindako lana.

g) *Euskaltzain berria izendatzeaz*:

Idazkariak aditzera ematen du, euskaltzain berriaren izendapenerako eskari proposamendu egiteko epea gaur bukatzen dela, azaroko batzar arruntean euskaltzainburuak dei egin bezala, arautegiaren 33 eta 34. artikulua eskatzen dutenez. Proposamendu bat besterik ez da agertu eta besterik egin nahi dutenak oraindik garaiz daude izena idazkiz emateko. Beraz, proposamendu bakarra: Jean Louis Davant zuberotarra, lehendik laguntzaile zena.

h) *Bakoitzak dakarrenetik*:

G. Arestik proposatzen du, aurtengoa Emakumeen Nazioarteko urtetzat izendatua denez, emakume euskaltzale eta idazle adineko zenbait euskaltzain ohorezko izendatzea. Datorren batzarrerako uzten da.

X. Kintana Institutoan euskara ikastoroetan sartzeko asmoetako batzarretarako Euskaltzaindiak ordezkariak izendatzea eskatzen du. J. L. Lizundia, Julia Berrojalbiz anderea eta Xabier Kinatana jaun bera izendatzen dira.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN